

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AMURRIOKO UDALA

#### **Alkatetzaren ebazpena, 2019ko ekainaren 24koa, zeinaren bidez argitaratzen baitira Amurrioko Udaleko 2017ko EPEaren emaitzak, eta zeinaren bidez izendatzen baiten administrari laguntzaile lanposturako karrerako funtzionarioa**

Amurrioko Udalak, alkatetzaren 2019ko ekainaren 24ko ebazpenaren bidez, Amurrioko Udalen 2017ko EPEaren emaitzak onetsi zituen, eta administrari laguntzaile lanposturako karrerako funtzionarioa izendatu zuen. Hona hemen, hitzez hitz ebazpena:

“2017. ekitaldiko Enplegu Eskaintza Publikoan jaso zen eta funtzionarioen aurrekontu plantillan hutsik zegoen administrari laguntzaile lanpostu bat betetzeko egin den prozesuari jarraituz, epaimahai kalifikatzailearen proposamenaren arabera, eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 36. eta 55. artikuluetan ezarritakoari jarraituz, alkate honek, legez dagozkion ahalmenak egikaritzuz, honako hau

Xedatzen du

Lehenengoa. Hautaketa prozesuaren emaitza onestea eta Administrazio Orokorreko C2 taldeko administrari laguntzaile lanposturako karrerako funtzionario izendatzea Iraida Sáenz de Lafuente Blanco andrea, zeinari jakinarazten baitzaio hogeita hamar (30) egun dituela lanpostuaz jabetzeko, izendapena jakinarazten zaion egunaren hurrengotik zenbatuta.

Bigarrena. Administrari laguntzaileen lan poltsa osatzea oposaketa gainditu duten baina plazarik lortu ez duten pertsonekin, eskuratutako puntuazioaren arabera.

Hirugarrena. Iragarkia hau udal iragarkien taulan eta ALHAOn argitaratzea”

Amurrio, 2019ko abuztuaren 8a

*Alkatea*

**MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA**